# ZERGA ITUNDUEN DIRU BILKETA METATUA GIPUZKOAN 2023KO URRIAREN 31RA ARTE

## Emaitza nagusiak

Urrira arte, Gipuzkoan, zerga-bilketa metatuaren hazkundea %4,3 izan da aurreko urtearekin alderatuta, sarrera gordinak %2,3 hazi direlako eta itzulketak %3,6 jatsi direlako. Zuzeneko zergak %10,4 handitu dira, zeharkako zergak %0,6 gutxitu dira eta Estatuarekiko doikuntzak %3,2 gutxitu dira.

Urrira arteko bilakaera positiboa esplikatzen du, alde batetik, sarrerek ondoko kontzeptuetan izandako hazkundeak: lan atxikipenak, BEZa, PFEZaren kuota diferentziala eta sozietateen gaineko zergaren kuota diferentziala. Era berean, BEZaren itzulketak murriztea eta zerga bereziengatik Estatuarekin egiten diren doikuntzen ordainketak murriztea ere izan dira bilakaera positibo horren arrazoia. Bestalde, urrira arteko zerga bilketan eragin negatiboa izan dutenen artean aipatu behar dira BEZaren doikuntzen sarrerak (bai lurraldeen artekoak, bai Estatuarekin egiten direnak) jaitsi direla, PFEZaren kuota diferentzialaren itzulketak handitu direla eta ondare irabazien atxikipenen sarrerak jaitsi direla.

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena, urrira arte:

| GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA URRIAREN 31RA ARTE | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2022 | aldea | % |
| Zergabilketa gordina | 5.802.696 | 5.672.647 | 130.049 | 2,3 |
| Itzulketak | 1.369.170 | 1.420.006 | -50.837 | -3,6 |
| Zergabilketa garbia | 4.433.526 | 4.252.640 | 180.886 | 4,3 |
| Aurrekontuaren betetze-maila | 74,7% | 79,4% | -4,7 | |

(Zenbatekoak milaka eurotan)

## Kontzeptu nagusien bilakaera

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena, urrira arte:

**GIPUZKOAKO ZERGA-BILKETA METATUA**
**URRIAREN 31RA ARTE**

| ZERGA KONTZEPTUA | ZERGA-BILKETA GORDINA | | | ITZULKETAK | | | ZERGA-BILKETA GARBIA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2022 | % | 2023 | 2022 | % | 2023 | 2022 | % |
| PFEZ | 2.054.042.855 | 1.870.125.690 | 9,8 | 345.946.615 | 314.952.620 | 9,8 | 1.708.096.240 | 1.555.173.070 | 9,8 |
| Sozietate Zerga | 398.465.844 | 369.193.209 | 7,9 | 90.931.549 | 107.683.180 | -15,6 | 307.534.295 | 261.510.029 | 17,6 |
| Gainerako zuzeneko zergak | 146.145.290 | 140.980.810 | 3,7 | 2.314.777 | 2.464.487 | -6,1 | 143.830.513 | 138.516.323 | 3,8 |
| **ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA** | **2.598.653.989** | **2.380.299.709** | **9,2** | **439.192.941** | **425.100.287** | **3,3** | **2.159.461.048** | **1.955.199.422** | **10,4** |
| BEZ | 1.872.900.228 | 1.943.126.087 | -3,6 | 716.319.637 | 768.802.263 | -6,8 | 1.156.580.591 | 1.174.323.824 | -1,5 |
| Zerga bereziak | 504.606.296 | 510.346.999 | -1,1 | 37.901.114 | 33.051.086 | 14,7 | 466.705.182 | 477.295.913 | -2,2 |
| Gainerako zeharkako zergak | 125.754.907 | 107.348.965 | 17,1 | 1.108.917 | 709.005 | 56,4 | 124.645.990 | 106.639.960 | 16,9 |
| **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA** | **2.503.261.431** | **2.560.822.051** | **-2,2** | **755.329.668** | **802.562.354** | **-5,9** | **1.747.931.763** | **1.758.259.697** | **-0,6** |
| **TASAK GUZTIRA** | **25.997.459** | **23.929.911** | **8,6** | **1.306.463** | **2.713.064** | **-51,8** | **24.690.996** | **21.216.847** | **16,4** |
| **KUDEAKETA PROPIOA GUZTIRA** | **5.127.912.879** | **4.965.051.671** | **3,3** | **1.195.829.072** | **1.230.375.705** | **-2,8** | **3.932.083.807** | **3.734.675.966** | **5,3** |
| **BEZen doikuntzak guztira** | **634.110.374** | **673.489.238** | **-5,8** | **14.856.981** | **7.214.263** | **105,9** | **619.253.393** | **666.274.975** | **-7,1** |
| **Zerga berezien doikuntzak** | **40.672.541** | **34.105.942** | **19,3** | **158.483.456** | **182.416.516** | **-13,1** | **-117.810.915** | **-148.310.574** | |
| **GUZTIRA** | **5.802.695.794** | **5.672.646.851** | **2,3** | **1.369.169.509** | **1.420.006.484** | **-3,6** | **4.433.526.285** | **4.252.640.367** | **4,3** |

## a. PFEZ

Lan etekinen atxikipenak %8,7 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 132,1 milioi euro gehiago jaso dira aurten.

Ondare irabazien atxikipenak 35,5 milioi gutxitu dira, 2022an ezohiko sarrerak egon zirelako; kapital higikorraren etekinen atxikipenak, berriz, 22,4 milioi handitu dira (kontzeptu horiek PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren artean banatzen dira, erdibana).

PFEZaren kuota diferentzial garbiaren sarrerak 53,1 milioi hazi dira eta itzulketak 32,1 milioi hazi dira. Kontuan eduki behar da kanpainako sarrerak uztailean eta azaroan kontabilizatzen direla, eta kanpainako itzulketen zati handiena apiriletik ekainera arte gauzatu dela.

Osagai guztiak kontuan izanik, PFEZaren zerga-bilketa garbia %9,8 handitu da, hau da, 152,9 milioi euro.

## b. Sozietateen gaineko zerga (kuota diferentzial garbia)

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzial garbia 51,0 milioi euro handitu da urrira arte, iazko epe berarekin alderatuta. Bariazio horrek bi osagai ditu: batetik, sarrera gordinak 34,2 milioi handitu dira, gehien bat, kanpainagatik; eta bestetik, itzulketak 16,7 milioi gutxitu dira.

Kontuan eduki behar da kanpainako sarrerak abuztuan kontabilizatu direla eta kanpainako itzulketa eskaeren zatirik handiena abuztutik abendura arte gauzatzen dela. Era berean, ordainketa zatikatuak maiatzean, azaroan eta abenduan kontabilizatuko dira.

**c. BEZ (Aldundiak kudeatua)**

BEZari dagokionez, gipuzkoarrek ordaindutako BEZa lurralde arteko doikuntzen bidez berreskuratu ondoren, zerga-bilketa metatua %1,5 jatsi da aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 17,7 milioi euro gutxiago bildu da:

- Gipuzkoako sarrerak %9,8 handitu dira, 123,6 milioi gehiago aurreko urtearekin alderatuta.
- Gipuzkoako itzulketak %6,8 gutxitu dira, 52,5 milioi gutxiago.
- Lurraldeen arteko doikuntzak %28,4 gutxitu dira, 193,8 milioi gutxiago.

**d. Zerga bereziak**

Tabako laboreen gaineko zergaren bilketa %3,2 hazi da, 3,2 milioi euro gehiago, eta hidrokarburoen gaineko zergaren bilketa %4,2 jaitsi da, 15,7 milioi euro gutxiago.

Bestalde, zerga berezi berri bat ezarri da 2023an, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga, eta horren bilketa 3,2 milioi eurokoa izan da.

**e. Estatuarekin doikuntzak**

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan bilketa metatua, joan den urteko epe beraren aldean, 47,0 milioi jaitsi da BEZean eta 30,3 milioi hobetu da zerga berezietan.

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan azpimarratu behar da: Inportazioen BEZaren doikuntzak 54,9 milioi gutxitu direla; eta hidrokarburoen doikuntzetan, aurreko urteko likidazioagatik 26,1 milioi gutxiago ordaindu dela.

# ERANSKINA

# GIPUZKOAKO
# ZERGA-BILKETA METATUA
# URRIAREN 31RA ARTE

# GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA URRIAREN 31RA ARTE

| ZERGA | ZERGABILKETA GORDINA | | | ITZULKETAK | | | ZERGABILKETA GARBIA | | | BETETZE-MAILA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2022 | % | 2023 | 2022 | % | 2023 | 2022 | % | 2023 | 2022 |
| Lan etekinen atxikipenak | 1.647.463 | 1.516.484 | 8,6 | 2.211 | 3.316 | -33,3 | 1.645.251 | 1.513.168 | 8,7 | 81,7 | 79,9 |
| Kap.higikorraren etekinen atxikipenak | 56.362 | 45.157 | 24,8 | 215 | 197 | 9,6 | 56.147 | 44.960 | 24,9 | 98,0 | 84,4 |
| Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak | 23.248 | 21.635 | 7,5 | 45 | 60 | -24,2 | 23.203 | 21.576 | 7,5 | 75,8 | 74,1 |
| Ondare irabazien atxikipenak | 9.162 | 26.925 | -66,0 | 22 | 32 | -30,9 | 9.140 | 26.892 | -66,0 | 33,6 | 108,4 |
| Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia | 2.751 | 1.692 | 62,6 | 0 | 0 | | 2.751 | 1.692 | 62,6 | 137,5 | 39,4 |
| Profesionalen ordainketa zatikatuak | 20.499 | 19.004 | 7,9 | 52 | 48 | 8,8 | 20.446 | 18.955 | 7,9 | 71,3 | 67,8 |
| Enpresarien ordainketa zatikatuak | 30.748 | 28.505 | 7,9 | 79 | 72 | 8,8 | 30.669 | 28.433 | 7,9 | 71,3 | 67,8 |
| Kuota diferentzial garbia | 263.811 | 210.723 | 25,2 | 343.321 | 311.227 | 10,3 | -79.510 | -100.504 | | | |
| **PFEZ, guztira** | **2.054.043** | **1.870.126** | **9,8** | **345.947** | **314.953** | **9,8** | **1.708.096** | **1.555.173** | **9,8** | **79,2** | **75,2** |
| Kap.higikorraren etekinen atxikipenak | 56.362 | 45.157 | 24,8 | 215 | 197 | 9,6 | 56.147 | 44.960 | 24,9 | 98,0 | 84,4 |
| Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak | 23.248 | 21.635 | 7,5 | 45 | 60 | -24,2 | 23.203 | 21.576 | 7,5 | 75,8 | 74,1 |
| Ondare irabazien atxikipenak | 9.162 | 26.925 | -66,0 | 22 | 32 | -30,9 | 9.140 | 26.892 | -66,0 | 33,6 | 108,4 |
| Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia | 0 | 0 | | 0 | 0 | | 0 | 0 | | | |
| Kuota diferentzial garbia | 309.694 | 275.476 | 12,4 | 90.648 | 107.395 | -15,6 | 219.045 | 168.082 | 30,3 | 92,4 | 88,0 |
| **Sozietateen gaineko Zerga, guztira** | **398.466** | **369.193** | **7,9** | **90.932** | **107.683** | **-15,6** | **307.534** | **261.510** | **17,6** | **87,3** | **87,7** |
| Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga | 47.207 | 48.849 | -3,4 | 272 | 318 | -14,6 | 46.935 | 48.531 | -3,3 | 71,5 | 96,9 |
| Ondarearen gaineko zerga | 70.771 | 69.312 | 2,1 | 257 | 1.182 | -78,2 | 70.514 | 68.130 | 3,5 | 100,7 | 98,5 |
| Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga | 18.248 | 13.628 | 33,9 | 1.495 | 947 | 57,9 | 16.753 | 12.681 | 32,1 | 104,1 | 68,5 |
| Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko zerga | 9.799 | 9.155 | 7,0 | 1 | 0 | | 9.799 | 9.155 | 7,0 | 101,0 | 94,4 |
| Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga | 120 | 37 | 220,0 | 290 | 17 | 1.584,0 | -171 | 20 | | | 0,3 |
| **I. KAPITULUA, GUZTIRA.- ZUZENEKO ZERGAK** | **2.598.654** | **2.380.300** | **9,2** | **439.193** | **425.100** | **3,3** | **2.159.461** | **1.955.199** | **10,4** | **80,8** | **77,6** |
| BEZ (Aldundiak kudeatua) | 1.872.900 | 1.943.126 | -3,6 | 716.320 | 768.802 | -6,8 | 1.156.581 | 1.174.324 | -1,5 | 72,5 | 85,5 |
| Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga | 53.699 | 57.860 | -7,2 | 364 | 470 | -22,5 | 53.335 | 57.390 | -7,1 | 68,8 | 74,9 |
| Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga | 13.112 | 11.568 | 13,4 | 74 | 47 | 56,9 | 13.039 | 11.521 | 13,2 | 85,2 | 71,1 |
| Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga | 7.180 | 6.302 | 13,9 | 324 | 182 | 77,7 | 6.856 | 6.120 | 12,0 | 99,4 | 63,1 |
| Alkohola eta edari deribatuak | 2.636 | 2.681 | -1,7 | 1.644 | 1.726 | -4,7 | 992 | 956 | 3,8 | 78,1 | 75,2 |
| Bitarteko produktuak | 57 | 112 | -48,9 | 29 | 65 | -55,3 | 28 | 47 | -39,9 | 42,3 | 70,2 |
| Hidrokarburoak (tasa autonomikoa salbu) | 361.836 | 377.587 | -4,2 | 6.160 | 6.200 | -0,6 | 355.676 | 371.387 | -4,2 | 64,2 | 70,5 |
| Hidrokarburoak, tasa autonomikoa | 0 | 0 | | 0 | 0 | | 0 | 0 | | | |
| Tabako laboreak | 129.479 | 124.234 | 4,2 | 26.255 | 24.198 | 8,5 | 103.224 | 100.036 | 3,2 | 78,4 | 88,0 |
| Garagardoa | 1.389 | 1.355 | 2,5 | 710 | 697 | 1,8 | 679 | 658 | 3,3 | 50,8 | 98,3 |
| Elektrizitatea | 3.033 | 4.377 | -30,7 | 124 | 165 | -24,7 | 2.909 | 4.212 | -30,9 | 67,0 | 25,7 |
| Berrerabili ezin diren plastik. ontzien | 6.176 | 0 | | 2.980 | 0 | | 3.196 | 0 | | | |
| **Zerga bereziak, guztira (Aldundiak kudeatuak)** | **504.606** | **510.347** | **-1,1** | **37.901** | **33.051** | **14,7** | **466.705** | **477.296** | **-2,2** | **67,4** | **72,4** |
| Zerga iraungiak (Hidrok. txikizkako sal. g. zerga) | 25 | 0 | | 25 | 1 | 2.611,1 | 1 | -1 | | | |
| Aseguru Primen gaineko Zerga | 28.230 | 27.192 | 3,8 | 38 | 0 | ####### | 28.192 | 27.192 | 3,7 | 75,8 | 76,4 |
| Joku jardueraren gaineko zerga | 1.438 | 992 | 45,0 | 0 | 4 | | 1.438 | 988 | 45,6 | 102,7 | 44,9 |
| Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga | 1.248 | 2.069 | -39,7 | 284 | 4 | 6.226,5 | 964 | 2.065 | -53,3 | 50,7 | 93,9 |
| Finantza-transakzioen gaineko zerga | 16.927 | 0 | | 0 | 0 | | 16.927 | 0 | | 95,6 | |
| Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga | 3.156 | 1.366 | 131,0 | 0 | 0 | | 3.156 | 1.366 | 131,0 | 73,4 | 27,9 |
| Hondakinak zabortegian uztearen gaineko Zerga | 738 | 0 | | 0 | 0 | | 738 | 0 | | | |
| Bestelako zerga iraungiak | 0 | 0 | | 0 | 0 | | 0 | 0 | | | |
| **II. KAPITULUA, GUZTIRA. - ZEHARKAKO ZERGAK** | **2.503.261** | **2.560.822** | **-2,2** | **755.330** | **802.562** | **-5,9** | **1.747.932** | **1.758.260** | **-0,6** | **71,4** | **78,7** |
| Bingoa | 716 | 634 | 12,9 | 0 | 0 | | 716 | 634 | 12,9 | 65,1 | 126,8 |
| Makinak eta aparatu automatikoak | 7.028 | 6.852 | 2,6 | 8 | 51 | -84,4 | 7.020 | 6.800 | 3,2 | 67,5 | 63,6 |
| Kasinoak eta bestelakoak | 1.474 | 1.460 | 1,0 | 0 | 0 | | 1.474 | 1.460 | 1,0 | 70,2 | 81,1 |
| **Jokoaren gaineko tasa, guztira** | **9.217** | **8.946** | **3,0** | **8** | **51** | **-84,4** | **9.209** | **8.894** | **3,5** | **67,7** | **68,4** |
| Luzapen eta premiamenduzko errekargua | 4.473 | 5.250 | -14,8 | 340 | 113 | 200,6 | 4.132 | 5.136 | -19,6 | 61,7 | 95,1 |
| Berandutza interesak | 4.736 | 4.151 | 14,1 | 572 | 2.183 | -73,8 | 4.163 | 1.969 | 111,5 | 148,7 | 30,3 |
| Isunak | 7.572 | 5.583 | 35,6 | 386 | 366 | 5,5 | 7.186 | 5.217 | 37,7 | 108,9 | 60,7 |
| **III. KAPITULUA, GUZTIRA.- TASAK** | **25.997** | **23.930** | **8,6** | **1.306** | **2.713** | **-51,8** | **24.691** | **21.217** | **16,4** | **83,1** | **63,3** |
| **ALDUNDIAK KUDEATUT.ZERGA ITUNDUAK** | **5.127.913** | **4.965.052** | **3,3** | **1.195.829** | **1.230.376** | **-2,8** | **3.932.084** | **3.734.676** | **5,3** | **76,3** | **78,0** |
| BEZaren doiketak: Aduanak-Inportazioak | 418.457 | 473.354 | -11,6 | 0 | 0 | | 418.457 | 473.354 | -11,6 | 62,6 | 104,1 |
| Barne eragiketak | 215.653 | 200.135 | 7,8 | 14.857 | 7.214 | 105,9 | 200.796 | 192.921 | 4,1 | 71,5 | 77,9 |
| **BEZAREN DOIKETAK, GUZTIRA** | **634.110** | **673.489** | **-5,8** | **14.857** | **7.214** | **105,9** | **619.253** | **666.275** | **-7,1** | **65,3** | **94,9** |
| Alkohola, deribatuak eta bitartekoak: inportazioak | 61 | 69 | -10,6 | 0 | 0 | | 61 | 69 | -10,6 | 87,3 | 107,8 |
| Alkohola, deribatuak eta bitartekoak: barne erag. | 19.315 | 13.942 | 38,5 | 0 | 0 | | 19.315 | 13.942 | 38,5 | 131,4 | 90,6 |
| Hidrokarburoak: inportazioak | 10 | 37 | -71,7 | 0 | 1 | | 10 | 36 | -71,2 | 14,1 | 538,5 |
| Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa aut. salbu) | 0 | 0 | | 153.673 | 179.406 | -14,3 | -153.673 | -179.406 | | | |
| Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa autonomikoa) | 0 | 0 | | 0 | 0 | | 0 | 0 | | | |
| Tabako laboreak | 10.963 | 13.085 | -16,2 | 4.810 | 3.010 | 59,8 | 6.153 | 10.074 | -38,9 | 57,5 | 97,2 |
| Garagardoa: inportazioak | 30 | 35 | -13,3 | 0 | 0 | | 30 | 35 | -13,9 | 60,2 | 40,3 |
| Garagardoa: barne eragiketak | 6.678 | 6.939 | -3,8 | 0 | 0 | | 6.678 | 6.939 | -3,8 | 85,1 | 96,0 |
| Berrerabili ezin diren plastikozko o.: inportazioak | 1.052 | 0 | | 0 | 0 | | 1.052 | 0 | | | |
| Berrerabili ezin diren plastikozko o.: barne eragiketak | 2.342 | 0 | | 0 | 0 | | 2.342 | 0 | | | |
| **ZERGA BEREZIEN DOIKETAK, GUZTIRA** | **40.452** | **34.106** | **18,6** | **158.483** | **182.417** | **-13,1** | **-118.032** | **-148.311** | | | |
| Berotegi-efektuko gas fluor. g. z.: inportazioak | 137 | 0 | | 0 | 0 | | 137 | 0 | | | |
| Berotegi-efektuko gas fluor. g. z.: barne erag. | 84 | 0 | | 0 | 0 | | 84 | 0 | | | |
| **BEROTEGI-E. GAS F. DOIKETAK, GUZTIRA** | **221** | **0** | | **0** | **0** | | **221** | **0** | | | |
| ***EFPK-RI ATXIKITAKO SARRERAK, GUZTIRA*** | **5.802.696** | **5.672.647** | **2,3** | **1.369.170** | **1.420.006** | **-3,6** | **4.433.526** | **4.252.640** | **4,3** | **74,7** | **79,4** |

(Zenbatekoak milaka eurotan)